

## Arrazakeria

# Erregularizatzeko dauden 34 etorkin aljeriar entzerratu dira Gasteizen

## Beraien egoera arautzeko beste epea eskatu diote Gobernu Zibilari

**G**asteizko San Vicente elizan Arabako Lautadan patata biltzen lanean diharduten 34 etorkin aljeriar entzerratu ziren astearte gauean. Langileon egoera erregularizatzeko epe berriaz gain, hemendik botatzeko espedienteak ez jasotzeko Gobernu Zibilaren hitza eskatu dute.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Aljeriar langileen bozeramaleak aurrean, komunikabideak erdian, eta atzean, astearte goizetik itxialdian dauden 34 etorkin bildu ziren atzo San Vicente Gasteizko elizak dituen lokaletan emandako prentsaurrekoan.

Mugarik gabeko hertsialdia egiten ari diren aljeriarrok ekintzaren arrazoia adierazi zuten. Izan ere, abenduaren 10ean bukatu zen atzeritarrek egoera erregulariza zezaten gobernu espainiarrek emandako epea, «baina guk —argitu zuten etorkinen bozeramaleak— ezin izan dugu egin, bozeramaleak ezin izan dugu egin, gutariko gehienok Arabako Lautadan patatak biltzen ari ginelako eta ezohizko epearen berri izan genuenerako beranduegi zelako».

Beraz, aljeriar taldeak asteartean «bere kabuz zein burujabetasunez» entzerratzeko erabaki zuten, deklaratu zuten SOS Arrazakeria Araba elkarreko kide batek. Etorkinekin batera, Gasteizko erakunde herrikoi baturuetako 40 lagun «elkartasun gisa» sartu ziren elizako agintariekin mugagabeko entzierroa negoziatzeko.

Langileon egoera erregularizatzeko epe berria izatea eta Arabako



«Lasai lan egin nahi dugu Poliziaren beldur izan gabe».

OIALDE

Gobernu Zibilarekin botatzeko espedienteak ez egitea negoziatzea dira etorkinen aldarrikapenak. Bestetik, elizan egiten duen «hotz ikaragarriari» aurre egiteko mantak bezalako tresnak bidaltzeko deialdia egin zieten gasteiztarrei.

**AURREKONTRATUA LORTU EZINIK** Elizan entzerratutako guztiek

erregularizaziorako baldintzak betetzen dituztela ziurtatu zuten aljeriarren bozeramaleek. Han bertan zegoen etorkin baten agiria erakutsi zuten: «Urtebete eman du Espainiako hainbat herrialdeetan eta kasuan kasuko jabeari aurrekontratu eskatzen dion bakoitzean uko egiten diote. Horregatik dabil han-hemenka».

Aljeriarren arabera, Madrilako Barne Ministraritzak txosten bana bidali die jabeiei, etorkinekiko erantzukizuna Administrazioari berari dagokiola omen dioena. «Horixe da, agian, jabeak beldurturik utzi dituen motiboa nahiz erregularizatzeko ezinbestekoak ditugun aurrekontratuak guri ez egiteko arrazoia», jakin arazi zuten langile hauek.

## Arabako Lautadan patata biltzen ari zirela «jazarri» zieten poliziek

L.K.G. / GASTEIZ

Bi dira Araban lanean diren etorkin aljeriarren aldarrikapenak, atzo goizean komunikabide zein entzerratuaren aurrean bozeramale batek gatzelanieraz eta arabieraz irakurri zituenak.

Zera dio lehenak: «Erregularizaziorako ezohizko epearen luzapena eskatzen dugu. Normaltasun osoz gu erregularizatu ahal izateko epe berria eskaintzea nahi dugu gure egoera arau dezagun, gure presentzia hemen lan indarraren eskaerak eragindako beharrian objektiboaren ondorioa da eta».

Bigarren aldarrikapena Arabako agintariei doakie: «Arabako Gobernu Zibilarekin negoziaketetan has-teko eskatzen dugu, 1991. urteko abenduaren 10ean amaitu zen erregularizatzeko epean sartzerik izan ez zuten langile atzeritarrei egozketa-espedienterik egingo ez dietelako hitza eman dezan».

Bigarren eskaeraren azkeneko esaldian aljeriarrek gaineratu zuten, «oraingoz» etorkinotako hiru lagun egotzi egiteko prozedura has-teko abisua bidali die Gobernu Zibilak. Halaber, atzo prentsaurrekoa eman zutenetako bik «Poliziaren jazarpena» jasan zutela adierazi zu-

Beste nazionalitate bateko langileekin harremanetan sartzeko «arazoak» aipatu zituzten, «gurean isolamendua nagusi delako eta erregularizatzeko epea oso laburra izan bait da». Hala ere, denok «antzeko arazo» pairatzen ari direla esan zuten. «Lasai lan egin nahi dugu, besterik gabe, eta Polizia gure atzetik ez izatea», adierazi zuten aljeriarrek.

ten. «Orbis herrian patatak biltzen ari zirela, Polizia azaldu, agiriak eskatu eta herriatik alde egiteko 48 ordutako epea eman zien», kontatu zuten aljeriarren bozeramaleak.

**EZ HEMEN, EZ HAIEN ABERRIAN**

Era honetan, Poliziak ez ziela erregularizatzeko inolako eperik eman deklaratu zuten. Atzeritarren bozeramaleek agudo erantsi zuten, gainera, «erregularizaziorako epea ez du Poliziak eman behar, Lan Ministeritzak baizik».

Aljeriarrek kazetarioi jakin arazi zituzten zein den «benetan jasaten dugun egoera», Aljeriako gatazka politikoa eta hemen diren etorkinen artean nolabaiteko loturarik dagoen galdetu zitzaizena. «Gure egoerak ez du inolako zerikusirik Aljeriaren egun bizi duenerakin. Zuek kazetariok —aipatu zuten bozeramaleak— Aljeriara joan zaitezke gertatzen ari dena ikustera. Guk ezin dugu, ez dugu informaziorik baina ezin dugu joan, gure herrialdera joan ondoren hona itzultzea galeraziko liguketelako».

Gasteizen itxialdian dauden etorkinen aldeko mobilizazioak bideratzeko baterakuntza eratu dute ezkerreko hogeitaherdi, sindikatu, elkarre nahiz erakundek.

## Sopelan hondakinak ez isurtzeko neurriak

G.A. / BILBO

Bizkaiko Foru Aldundiak ura bonbeatzeko planta eraikiko du, probintzia honetako Sopelako hondartzara hondakin poluigarririk ez isurtzeko. Proiektu honek 132 milioi pezeta kostua izango du.

Joan den udan Sopelako hondartzaren inguruan dauden etxebizitzetako hondakinak jasotzen zituen itsas azpiko hodia apurtu zen eta zenbait astez ezin izan zen hondartza honetan bainatu.

Hondakin poluigarri hauek itsasora botatzea ekidin asmoz, Diputazioak hasiera batean ur depuradora bat eraikitzea erabaki zuen. Baina, egoera berraztertuz, ur depuradorearen proiektua baztertu eta ura bonbeatzeko planta bat eraikitzea erabaki du.

Ura bonbeatzeko planta Sopelako Arrietaran hondartzako auto aparkalekuan eraikiko dute lurpean ura Sopelako kolektoreetara bonbeatu da eta handik udal ur depuradora bideratzeko.

Ur bonbaketa planta eraikitzekeko arrazoia bi dira: ura itsasora bota ezik, garbitu egiten delako; eta kostua txikiagoa delako.

Dobainik Zuretzat

SAGARDOTEGIEN  
GIDA-ZERRENDA

Sagardotegi garaietan zabalik izango diren gida-zerrenda horien helbide, telefono, eta beste hainbat zehaztasun interesgarriekin.

Eska ezazu

Astigarraga Ato, s.a.

CONCESIONARIO RENAULT

Bermingham, 15 - GROS  
Polig. 26 - ASTIGARRAGA



Bozeramaleak aljeriarren eskakizunak irakurri zituen.

OIALDE